



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, [REDACTED]
[REDACTED] EUSKADIKO SASKIBALOI FEDERAZIOKO
APELAZIO-BATZORDEAK HARTUTAKO 8 ZENBAKIKO ERABAKIAREN
AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA**

Espediente-zk: 11/2015

AURREKARIAK

Lehena.- 2015eko otsailaren 27an, Euskadiko Saskibaloï Federazioak errekurtsu bat igorri zuen, (otsailaren 25ekoa) [REDACTED] ohar-hartzaileak jarritakoa Euskadiko Saskibaloï Federazioko Apelazio Batzordearen 8. erabakiaren aurka, erabaki horretan ezetsi egiten baitzen haren apelazio-errekurtsua eta Euskadiko Saskibaloï Federazioko Lehiaketa Batzordeak emandako 19. erabakia berretsi; izan ere, erabaki hari jarraikiz, jardunaldi bateko zigorra ezarri zitzaion, akta osorik ez betetzeagatik, kontuan hartuta zer xedatzen den Euskadiko Saskibaloï Federazioaren Diziplina Erregelamenduaren 41.d) artikuluan, testu bereko 30. eta 31. artikuluez den bezainbatean, kasuan kasuko espedientean eta Federazioko Apelazio Batzordearen txostenean.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (KJEB aurrerantzean) aipatu errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- KJEBk du errekurtsu hau aztertzeo eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia



Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Bigarrena.- 2014ko urriaren 24an Portugalete klubaren eta Paules Skoda taldearen artean jokaturako partidaren aktaren arabera, etxeko taldeak – Portugaletek– ez zuen aurkeztu gizonezkoen 2. mailako entrenatzaile-lizentziarik.

Errekurtsorearen egileari jardunaldi bateko zigorra ezarri zitzaion akta osorik ez betetzeagatik, kontuan hartuta zer xedatzen duen Euskadiko Saskibalo Federazioaren Diziplina Erregelamenduaren 41.d) artikulua, testu bereko 30. eta 31. artikuluen gainean.

Hirugarrena.- Errekurtsogileak Apelazio Batzordean egindako alegazioak errepikatzen ditu bere errekurtsorean. Haien arabera, talde bakoitzaren lizentziak aztertzean, ohartu zen Portugalete taldeko entrenatzailearen lizentzia ez zegokiola mailari; hala, horren berri eman zion arbitro nagusiarri, eta ezin zela inskribatu adierazi; arbitroak, errekurtsogileak diotenaren arabera, hau esan zion: *“Inskribatu, eta txostena gero egingo da”*. Eta [REDACTED] andreak hau dio: *“eztabaida labor baten ondoren, Erregelamenduak ezartzen duen protokoloa kontuan hartuta (46.11 eta 46.13 artikulua), arbitro nagusiak erabaki zuen entrenatzailea inskribatzea eta aipatu partidaren aktaren atzealdeko txostena egitea. Hark esandakoari jarraiki, hauxe baino ez da jasotzen txostenean: Portugaletek ez zuela aurkeztu zegokion mailako entrenatzaile-lizentziarik”*.

Errekurtsogileak, halaber, hau esan du: *“Apelazio Batzordearen 8. erabakia jasotakoan, ohartzen naiz ez dela esaten zergatik den ezinezkoa errekurtsogilearen alegazioak onartzea, baina defentsarik gabe uzten nau horrek, eta, nire ustez, erabakia erabat deuseza da”*.



Laugarrena.- Bidezkoa da, lehenik eta behin, aurkaratutako ebazpenetan arrazoirik ez izateak eragindako defentsa-gabeziagatik alegatutako erabateko deuseztasuna aztertzea.

30/1992 Legearen 54. artikulua arrazoiei buruz dioenez, “*egitateen eta zuzenbideko oinarrien aipamen laburra ere eginez*” eman behar direla.

Berme bat da, zigortutako pertsonari aukera ematen diona jakiteko zergatik hartu den erabakia, eta haren aurka egiteko, hala egokituz gero, eta, horrenbestez, deuseztasuna edo deuseztagarritasuna da arrazoirik ez emateari dagokion zigorra, defentsa-gabezia eragiten badu. Baina, deuseztasun-kausa izateko, ez da nahikoa defentsa-gabezia alegatzea, errekurtsogileak hura egiaztatu behar baitu (KAren epaiak: 1/1996, urtarrilaren 15ekoa; 170/1998, uztailaren 21ekoa, 101/1999, maiatzaren 31koa; 183/1999, urriaren 11koa; 27/2001, urtarrilaren 29koa; 236/2002, abenduaren 9koa; 128/2003, ekainaren 30ekoa; 91/2004, maiatzaren 19koa).

Kasu honi dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena den azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 54. artikuluan aipatzen diren egitateak eta zuzenbide-oinarriak jaso zituen Lehiaketa Batzordearen 19. erabakiak, eta, horregatik, ezin da arrazoirik eza alegatu, eta gauza bera gertatu zen Apelazio Batzordearen 8 zenbakiko erabakiarekin.

Egia da azken horrek erantzuna eman behar ziekeela errekurtsogileak eragindako alegazioei (30/1992 Legearen 113.3 artikulua), baina administrazio-akats guztiek ez dute deuseztasuna edo deuseztagarritasuna eragiten, 30/1992 Legearen 62. eta 63. artikuluan jasotakoek baino ez, hurrenez hurren.



Errekurtsogileak 30/1992 Legearen 62. artikuluko deuseztasun-kasuetakoren batean dagoela egiaztatu ez duenez, 30/1992 Legearen 63.2 artikulua da aplikagarria, honako hau baitio hitzez hitz: “...*formazko akatsak bakar-bakarrik ekarriko du deuseztagarritasuna egintzak bere helburua lortzeko formazko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituenean, edo interesdunak babesik gabe uzten dituenean*”.

Bosgarrena.- Gaiaren mamiari dagokionez, honako hau dio Federazioak: “*ohar-hartzaileak eranskina idazteaz arduratu beharko zuen, berak adierazten duena gertatuz gero, arbitro nagusiak adieraz zezan Portugalete taldeko entrenatzailearen inskripzioa berak berariaz aginduta egin zela, edo ohar-hartzaileak inskripzioa ezin zela egin esan zuela*”.

Baina aktan ez dago jasota ohar-hartzailearen inolako erreserbarik, eta ez du aurkeztu bere aurkako jarrera egiaztatzeko inolako frogarik.

Kirol Justiziako Euskal Batzordea honek

ERABAKITZEN DU

Ez onartzea [REDACTED] Euskadiko Saskibaloiko Federazioko Apelazio Batzordeak haren apelazio-errekurtsoa ezesteko hartutako 8 zenbakiko erabakiaren aurka jarritako errekurtsoa, eta 19 zenbakiko erabakia berrestea, Euskadiko Saskibaloiko Federazioko Lehiaketa Batzordeak emana, eta hari jardunaldi bateko zigorra ezartzen diona, akta osorik ez betetzeagatik.

Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du. Haren aurka egiteko, beraz, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote



interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtso-egileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Gasteizen, 2015eko martxoaren 13an

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO LEHENDAKARIA